


ikAPPsi ingurumenagatik!

BV virtual, naturaren ezagutza eta kontserbazioa helburu duen plataforma digitala da. Horretarako zientzia-hiritarra erabiltzen du, informazio iturri gisa, gero informazio hori dena gizarteari berari helarazteko

Biodiversidad Virtual plataformaren kudeatzailea Fotografía y Biodiversidad elkarte espainiarra da. Webgunetik edota app-tik, erabiltzaileek euren argazkien ekarpenarekin laguntzen dute, eta aditu talde ezberdinek eduki horiek aztertu eta iragazi egiten dituzte. Azken finean BV Virtual, erabiltzaileen ekarpenei esker sortutako naturaren argazki bilduma handi bat da.

Ingurune aunitzetako argazkiak aurki daitezke baita gai ezberdin askotakoak ere; geologia, fenomeno atmosferikoak, etnografia, ugaztunak, eta



Erabiltzaileek egindako argazkiak ikusi nahi izanez gero, webgunean sartu zaitezke. Informazio gehigarria topatuko duzu; gidak, artikulak, berriak, ... Eta animatzen bazara, erregistratu eta zure argazkiak webgunetik edo app-tik igo ahal izango dituzu.

